

LAUDIO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2019ko azaroaren 29 eguneko, Basalarrina Euskal Topagunea diru-laguntza izendunaren hartu zuen erabakiaren laburpena.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2019ko azaroaren 29 egunean hartu zuen erabakiaren laburpena argitaratzen da. Erabakiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa.- Onuraduna.

Basalarrina Euskal Topagunea

Bigarrena.- Xedea.

2019ko udal aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izenduna ematea, gure herrian 2019 urteko egitarau ezberdinak antolatzeko: Olentzero 2019 eta Ikazkinaren eguna, Euskararen Egunaren ospakizuna, Neguko Azoka, Sukaldaritza Ikastaroa. Euskal Mitologia Hitzaldia.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak.

2019ko azaroaren 29 egunean Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren hartutako erabakiaren bidez.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Diru-laguntza honen kopurua 9.775,00 euro izan da.

- Olentzero 2019 eta Ikazkinaren eguna: 6.716,00 euro
- Euskararen Egunaren ospakizuna: 920,00 euro
- Neguko Azoka: 1.334,00 euro
- Sukaldaritza Ikastaroa. Euskal Mitologia Hitzaldia: 805,00 euro

Bosgarrena.- Diru-laguntza justifikatzeko epea

Programa burutzen diren egunetik hilabete bateko epearen barruan

Laudio, 2019ko azaroaren 5ean
Alkate-udalburua, ANDER AÑIBARRO MAESTRE